

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

NAVARIDASKO UDALA

Jendaurrean jartzea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2025eko errolda eta zerga kobratzeko moduan jartzea

Navaridasko trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga 2025ean ordaindu behar dutenen errolda behin-behinean onetsi ondoren, espedientea hamabost egun baliodunegongo da jendaurrean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onetsizat joko da.

Borondatezko aldiko dirubilketa apirilaren 1etik maiatzaren 31ra izango da, biak barne. Ordainketa inongo banketxe edo aurrezki kutxatan helbideratu ez duten zergadunek udal bulegoan ordaindu beharko dute, aipatutako borondatezko aldian.

Bankuetan helbideratutako ordainketak udalak izapidetuko ditu.

Borondatezko aldiko dirubilketa amaituta, ordaindu gabeko kuotak premiamenduko beteazte bidean sartuko dira, eta legez ezarritako errekarquak, eta, hala badagokio, berandutze interesak eta kostuak sortuko dituzte.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Navaridas, 2025eko otsailaren 12a

Alkatea

MIKEL FERNÁNDEZ CALLEJA